

Apirilaren 1ean Korrika Durangaldean



22. Korrika Amurion hasiko da, martxoaren 31n, eta apirilaren 10ean amaituko da, Donostian. AEK-k asteon iragarri du aurtengo edizioaren ibilbidea eta noiz pasatuko den herri bakoitzetik. Eskualdetik apirilaren 1ean pasatuko da. Zornotzatik sartuko da Durangaldera, eta herririk herri ibili eta gero Mallabitik irtengo da. • 6

Lur-prospekzioa egin ahalko dute hilerrian, hobi komunik ba ote dagoen ikertzeko

Memoria historikoa • Gogora institutuak argi berdea eman du Durangoko kanposantuan lur-prospekzio bat egin eta bertan Martxoaren 31ri loturiko hobi komunik ba ote dagoen ikertzeko. Durangoko Udalaren berbetan, 85-100 petso-naren gorpuzkiak egon litezke hilerriko hobi komunetan. Bestalde, Udalak Memoria Historikorako lantaldea sortu du Gerediaga eta Durango 1936 elkarteekin. Aurten, 85 urte beteko dira Italiako abazio faxistak Durango eta Elorrio bonbardatu zituenetik • 5

Gabonetako denboraldia apal joan da merkatarientzat



Erreportajea • Durangaldeko merkatariek neguko denboraldi konplikatua bizi dute. Iazko Gabonetako kanpainagaz alderatuta, salmentak jaitsi egin direla azaldu dute. Bonuen kanpainak salmentei bultzada ematen dietela aitortu dute eskualdeko merkatariek elkartetako ordezkariak. • 2-3



San Blasak bueltan, etenaldiaren ondoren

Azoka • Abadiñoako Udalak San Blas eguneko azoka antolatuko du otsailaren 3rako. Feria ganadura eta baserriko produktetara mugatuko dute. Ez da txosnarik egongo. • 11



Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuela Oficial de Idiomas

**2022ko matrikula librea
ZABALIK**

On-line

Urtarrilaren 24tik
otsailaren 11ko 13:00etara arte.

36,18€

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 – 94 681 66 45





Merkatari elkarteek diotenez, bonuen kanpainak salmenten pizgarri izaten ari dira.

"Gabonetako denboraldia apal joan da merkatariontzat"

Iaz baino salmenta gutxiago izan dituztela eta, Durangaldeko merkataria arduratuta daude; Interneteko plataformen eskaintzak geroago eta gehiago eragiten die

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Pandemiaren hasieran, tokiko merkataritzaren garrantzia agerian geratu zen. Zero kilometroaren aldarria geroago eta ozenago entzuten hasi zen. Baina urte bi geroago, zein egoeratan dago Durangaldeko tokiko merkataritza? Galdera horri erantzunak bilatu guran, Durangoko Dendak Bai elkarteko, Zornotzako Dendariak elkarteko eta Elorrioko Merkatarik Elkarteko (EME) kideek tokiko komertzioaren inguruko gogoeta egin dute.

Neguko denboraldia eta batez ere Gabonetako salmentak iaz baino baxuagoak izan direla azpimarratu du Alex Palacios Dendak Baiko presidentek. "Iaz, Gabon aurreko asteetan itxiera perimetrala ezarrita zegoenez, Gabonetako kanpaina ona izan zen. Aurtengoa apalagoa izan da", dio durangarrak. Gabon osteko behe-rapenetan, arropa-dendek egoera zoezer hobetu dutela gaineratu du Palacios. Antzeko argazkia egin dute EMEko eta Dendariak elkarteko ordezkariak ere Elorrioko eta Zornotzako komertzioaren inguruan.

Izaskun Agirre EMEko kideak dioenez, "Gabonetan jende asko kutsatuta eta konfinatuta egon da eta uste dugu horrek eragina izan

duela salmentetan. Gabonetako denboraldia apal joan da merkatariontzat", dio Agirrek.

Elorrioko merkatarien ustez, zero kilometroaren kontzientzia gehiago igartzen zen lehen. "Elkarte legez, guk Elorrion bizi, Elorrion erosi, denok irabazi kanpaina egiten dugu urtero. Aurten ere farola denetan ipini dugu lelo hori. Iaztik hona, jendeak ahaztu egin du hori. Badago jendea tokiko merkataritzaren aldeko hautua egiten duena, baina gazteek batez ere, erosotasunagatik-edo, sarean eroatera jotzen dute".

Zornotzako merkatarik elkarteko Asier Madariagaren esanetan, "geroago eta erosoagoak gara eta ez dugu gura gure etxe azpian dagoen dendetara joan, klik baten bitartez erosketak egiteko aukera badugu".

Bonuak lagungarri

Urte hasieran martxan ipinitako bonu kanpainagaz igarri dute merkataritzari emandako bultzada. "Bonuek laguntzen dute. Une batzuetan gehiago igartzen da, lehendik ere komertzioan aktibitate baxuko hileetan egiten bada. Salmenta aktibatzen du. Gabonetan, esate baterako, ez da hainbeste igartzen, lan askoko sasoi izaten delako. Durangon, irailetik

udalaren kanpaina bi eta Aldundiaren kanpaina bat izan ditugu. Orain, Jaurlaritzaren bigarren zatia dugu", azaldu du Palacios.

A. Palacios: "Erronka bat da dendari bakoitzak bere modura digitalizatzen ikastea"

Merkatarien zailtasunak

Plataforma handien sareko salmenta da tokiko merkataritzari kalterik handiena eragiten diona. Merkatarik elkarte guztiak bat datoz horretan. "Sareko salmentak igo egin dira eta horregaz ezin gara lehiatu. Ulertzen dut herri txiki-tako merkataritzan ez daudela aukera guztiak. Baina herrian dauden aukerak baliatzea da kontua. Ondoko dendan erosi dezakezuna Interneten bitartez erostea ez du zentzu handirik", dio Agirrek.

Zornotzaren kasuan, Dendariak elkarteko Asier Madariagak dioenez, "instituzioek puntu ahul horiek aurreikusi dituzte, eta horrek saihesteko, sarean bitartez erosketak egiteko plataformak egokitu dituzte modu lokal batean azken urteotan. DendaGo, Eup!...

Dendariak elkarteak, esate baterako, pandemiaren lehenengo etapan *Zornotza Bultzatuz* izeneko plataforma atera genuen sarean, Zornotzako dendak itxita zeude-nean jendeak bertako dendetan erosi zezan behin horiek zabaldurikoan, bonuak erabilita. Iaz, udalak Zornotzan erosi plataforma atera zuen eta plataforma honetan Zornotzako merkatariek euren produktuak igotzeko aukera dute. Horrela, sarean azalduz digitalki handitzen dute euren merkata. Gura duenak oraindino eman dezake izena".

Hala ere, tokiko merkatariek sarean ere saltzeko ideia horrek baditu bere zailtasunak. "Denda-

katzea eta gero bat bueltatzea, edo sare bidezko salmentan gertatzen diren horrelako gauzak", argitu du Madariagak.

Alex Palaciosen ustez, tokiko merkatarien digitalizazio prozesua malgua izan beharko litzateke: "Erronka bat da dendari bakoitzak bere modura digitalizatzen ikastea. Ez dago modu bakar bat denda guztientzat. Batzuk whatsapp bidez egingo dute, beste batzuk webgune batez, plataforma baten bitartez... Sare sozialak ere erakusleho bat dira. Denda askok denbora daramate horretan. Gu ere garatzen gabilta".

Interneteko plataformez gainera, Durangaldeko merkatarien beste lehiakide bat Bilboko komertzioak direla gogoratu du Palacios. "Herriko gastu handi bat hiriburura joaten da", gaineratu du durangarrak.

Belaunaldi aldaketa

Egungo egoerari herri txikietan belaunaldi aldaketaren zailtasuna gehitu behar zaio. "Elorrion ixten diren komertzioak ez dira zabaltzen. Kasu bitan bakarrik beste jabe batzuek hartu dute negozioa, baina hemendik hamar urtera asko jubilatu egingo gara eta ez dut uste jarraipenik egongo denik", ohartarazi du Agirrek.

EME: "Hemendik hamar urtera asko jubilatu egingo gara eta ez dut uste jarraipenik egongo denik"

rioi Interneteko salmenta martxan ipintzeko esaten digute askotan. Baina denda txikietan ez dut hori posible ikusten. Guk ez daukagu hainbeste produktu, ezinezkoa zaigu pertsona batek neurri desberdinetako produktu bi es-



KRISTINA
FERNÁNDEZ AXPE

BAMBAS. Durango

"Internet bidezko bezeroak Asturiaskoak eta Kantabriakoak dira, hemengoak baino gehiago"

Kristina Fernández Axpe eibartarra da sortzez, baina Elorrion bizi eta Durangon lan egiten du. 6 urte dira Montevideo kaleko Bambas denda zabaldu zuenetik. Oinetakoak eta arropa saltzen ditu batez ere. Beherapenetan bete-betean sartuta dago. Gaur egungo beherapenak ez direla lehengo modukoak azaldu du.

Beherapenen sasoi betean gaude. Zelan doaz dendako salerosketak?

Gaur egungo beherapenak ez dira garai batekoen modukoak. Azalera handiko komertzioek deskontuak izatera ohitu dituzte bezeroak. Promozio bereziak direla edo *Black Friday* dela, gaur egun ez duzu beherapenak izan arte itxaron beharrik. Dena dela, pozik gaude, jendea badator. Aprobetxatzen du denboraldia. Oraingoz, ondo gabiltza.

Zelakoa da bezeroaren martxa?

Koronabirusaren gai honegaz jendea nahiko triste dabil. Positibo bat hemen, itxialdi bat han. Igartzen da hori. Jendea badabil, baina ez da lehengo motibazio hori. Goibel ikusten dut.

Zelan ari zarete moldatzen Interneteko salmentetara?

Interneten egundoko konpetentzia dago. Guk marka eta etxe ezagunak ditugu dendan, eta ahalegintzen gara produktuak apur bat desberdintzen. Koloreetan eta materialetan, adibidez. Internet bidezko bezeroak Asturiaskoak eta Kantabriakoak dira, hemengoak baino gehiago. Sevillatik ere jende dezente egiten dizkigu eskariak. Esango nuke produktua Instagramen ikusten dutela lehenengo, eta gero sarean egiten digutela erosketak. Dena dela, dendan bertan fakturatzen dugu gehien, inguruko herritarrekin. (@bambasdurango)



SARA
BERNEDO PRADO

SARA denda. Elorrio

"Jeneroa berriztea gustatzen zaigu eta, horretarako, produktuak atera egin behar ditugu"

Sara Bernedo Elorrioko Sara dendako arduraduna da. Bernedok orain 15 urte zabaldu zuen denda, Erreka kalean. Elorrioko dendaz gainera Arrasaten ere beste denda bat dauka.

Merkealdi sasoiaren murgidulta gaude. Zelan doa salmenta?

Bueno, badoaz eta ez da gutxi. Orain arte, Eusko Jaurlaritzak emandako bonuak egon dira, eta, egia esan, mugimendua egon da horri eskerrak. Baina orain apur pat motelago doa kontua.

Orain, urte osoan zehar beste hainbat eskaintza egoten da, Black Friday eta horrelakoak. Gaur egun, badute zentzurik beherapenek?

Egia da orain jendeak ez dituela lehengo gogoagaz hartzen beherapenak, ez dago beherapenetarako afanik. Baina ez da oraingo kontua. Dagoeneko urteak daramatzagu hori igartzen, urteetako joera dela esango nuke. Ez da nobedade bat.

Hala ere, guretzat beherapenek badute zentzua, eta garrantzitsuak dira. Jeneroa berriztea gustatzen zaigu eta, horretarako, produktuak atera egin behar ditugu, jenero hori zelan halan atera behar dugu.

Eroste eta saltzeko moduak aldatzen doazen sasoi hauetan, hau da, sare sozialek eta Interneteko salmetek indarra hartu duten garaitan, zuek baduzue horrelako estrategiarik?

Bai, guk asko erabiltzen dugu Instagram, eta hortik zertxobait saltzen dugu; askorik ez, baina apur bat bai. Guretzat Instagram erakusleio bat da, eta bezeroei eta bezero posibleei gure produktuak erakusteko baliatzen dugu. Jendeak gustura eta esker oneko hartzen du hau. (@sarabernedo)



AGURNE
AZKARATE GARTZIA

OLIVER. Durango

"Beherapenetako lehenengo astea oso ona izan da"

Agurne Azkaratek 27 urte daramatza Durangoko Oliver arropa-dendan beharrean. 9 urte saltzaile lez, eta 18 arduradun postuan. Ume eta nerabeentzako arropa saltzen du gehienbat. Gabonetako salmentak apal joan direla dio.

Zelakoa izaten ari da beherapenen denboraldi hau?

Beherapenetan oso ondo saltzen gabiltza. Euskadi Bonu Dendaren kanpaina martxan ipini dute eta igarri dugu. Beherapenetako lehenengo astea oso ona izan da. Gabonetan, ostera, ez gara horrela ibili. Beste urte batzuetan baino dezente gutxiago saldu dugu. Familiarteko kideak ohi baino gutxiago elkartu direnez, horren eragina igarri dugu. Jendeak esan izan digu arropa biloba guztientzat erosi barik, bilobaren batzuentzat baino ez zuela erosiko. Horrelako egoerak izan ditugu.

Zelan zabilzate moldatzen Internetek eskaintzen duen erakusleioan? Digitalizazioa konplikatu da?

Facebook eta Instagram kontuak ditugu. Iazko itxialdian gogoan dut Facebook-en bitartez saldu genuela. Whatsapp Business izeneko aplikazioagaz ere bai. Baina ez da ohiko sistema. Internetek balio izan digu produktuak ezagutarazteko erakusleio legez, baina erosketak hemen bertan egiten ditugu. Azken finean, gure bezeroak ingurukoak dira eta bertara etortzen dira.

Zelan baloratzen duzu Bizum sistema dendetako salmentak egiteko?

Nire kontu pertsonaletarako erabiltzen dut, baina, oraingoz, bankuek ez dute aukerarik ematen Bizuma negozio bati lotuta egoteke. Gustatuko litzaidake edukitzea, kanpoko erosleak ere badituzte eta.



MIKEL
GONZALEZ ALDEKOA

KIROL DENDA. Berriz

"Sare sozialek dendako produktuak erakusteko eta denda ezagutzera emateko erabiltzen ditut"

Mikel Kirol Sport dendak urtebete pasatxo darama zabalik Berrizen. Kirol arropa eta zapatilak saltzen ditu. Gustura dago dendak orain arte izan duen harreragaz.

Merkataritza-zentro handietarako joera dagoen garai hauetan, zer arrisku du herri txiki batean denda zabalteak?

Herri txikietan badakizu herriko jendeagaz bakarrik errentagarritasuna ateratza oso gaxa dena. Baina nire kasuan behintzat, dendaren berri izan duen eta tokian tokiko merkataritza babestu gura duen kanpoko jendea ere badator. Apurka-apurka joan behar da, eta denbora batera balantzea egin.

Beherapenak sasoi ona dira salmentarako?

Bai, beti sasoi berean dira eta horrek jendearengan ohitura bat sortzen laguntzen du. Gainera, udalek, Aldundiek edo Jaurlaritzak ateratzen dituzten deskontu bonuek asko laguntzen dute jendea erakartzeko. Formula ona dira.

Sare sozialek baliagarriak dira negozioa ezagutarazteko?

Bai. Sare sozialek dendan ditudan produktuak erakusteko eta denda ezagutzera emateko erabiltzen ditut, bezeroak dendara erakartzeko amu modura. Jendea dendara joatea eta han gertuko zerbitzua eskaintzea gustatzen zait: zer neurritako zapatilak behar dituzten, zoruari gehiago edo gutxiago heltzen diotenak..., bakoitzak bere beharrian propioak izan ditzake eta.

Dendara bertara joateak baditu bere abantailak.

Bai. Bertara joan, zapatilak probatu, dendariak zer aholkatzen dizun ikusi... Jendeak asko eskertzen du orientazio hori, eta niri ere asko gustatzen zait.

Taxilagun Durango osora hedatu dute eta Momotxo, Larrinagatxu eta Eguzkitzako bizilagunei abantailak eskaini dizkiete

Orain arte, anbulatorio bietara, udaleko adinekoen egoitzara eta Mankomunitateko gizarte zerbitzuen bulegora joateko baino ezin izan da erabili



Durangoko taxi geltokia, Ezkurdi.

Euro bi bidaia

Erabiltzaile bakoitzak hile bian hamalau bonu erosi ahalko ditu gehien jota. Eta hoge Momotxo, Larrinagatxun edo Eguzkitzan bizi badira. Zerbitzua erabiltzeko mekanika oso sinplea da. Taxilagunen izena ematen duenak txartel bat jasoko du eta bertan taxi zerbitzuko telefono zenbakia ipinita izango du. Herri barruan leku batetik bestera doan erabiltzaileak euro

Erabiltzaileen batez besteko adina 84 urtekoa da eta horietatik %74 emakumeak dira

bi ordainduko ditu bidaia bakoitzeko. Zerbitzua ordaintzeko faltako litzatekeen diru kopurua Durangoko Udalak ipiniko du. 50.000 euro ipini dute egitasmo-rako.

Durangoko Taxilagun zerbitzua 2020ko urrian ipini zuten martxan. 144 herritar daude alta emanda. Erabiltzaileen batez besteko adina 84 urtekoa da. Zerbitzua erabiltzen dutenen %74 emakumeak dira.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak egokitzapenak egin ditu Taxilagun zerbitzuan. Orain arte, herriko lau puntutara joateko aukera baino ez du eskaini Taxilagunek: anbulatorio bietara, udaleko adinduen egoitzara eta Mankomunitateko gizarte zer-

bitzuen bulegora. Baina hemen-dik aurrera, zerbitzu hori zabaldu egingo dute. 76 urtetik gorako erabiltzaileak udalerriko edozein puntutara joan ahal izango dira taxian. "Besteak beste, Momotxo, Larrinagatxu eta Eguzkitza baserri auzoak integratuago egongo dira

herrigune urbanoagaz", adierazi du Julián Ríos alkateordeak prentsaurrekoan.

Zerbitzua erabiltzen dutenek honako betebeharrak hauek konplitu beharko dituzte: Durangon erroldatuta egotea, 76 urte baino gehiago izatea edo desgaitasunen

bat zein mendekotasunen bat izatea. Marian Bilbatua zinegotziak adierazi du zerbitzuan izena eman gura duenak adinekoen egoitzara jo beharko duela, astelehene-tik barikura bitartean, 10:00etatik 13:00etara zein 16:00etatik 18:00etara.

60 urtetik gorako durangarrek sarrera erdi baino ez dute ordaindu beharko Zugaza zinemako opera saioetan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Zugaza zinemak aldeztu aurretik grabaturiko 7 opera saio eskainiko ditu datozen astetan. Hori dela eta, udalak diruz lagunduko du 60 urtetik gorako sarrerak ordaintzeko. Txartelak

11 euroan daude salgai, 9 euroan aldeztu aurretik erreserbatzen bada. Beraz, udalaren diru laguntzari eskerrak, 60 urtetik gorakoek 5,5 edo 4,5 euroan eskuratu ahalko dituzte sarrerok. Honako hauek dira eskainiko dituzten lanak:

urtarrilaren 26an, Madrilgo Errege Antzokian grabaturiko *Luisa Fernanda*. Otsailaren 9an, *Macbeth* (Milango Scalan grabaturikoa), eta 23an, *La Traviata* (Erromako Opera Antzokia). Martxoaren 9an, *Tosca* (Londresko Royal Opera House) eta 23an, *Rusalka* (Madrilgo Errege Antzokia). Apirilaren 5ean, *Rigoletto* (Londresko Royal Opera House), eta 27an, *Rossini opera gala* (Pesaro-ko Antzokia). Emanaldi guztiak 19:00ean izango dira.



Udal ordezkariak eta Emilio Ferreras Zugaza zinemako arduraduna.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko urtarrilaren 21a
20. urtea - 878. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Gorette Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzako Gogora institutuak argi berdea eman dio kanposantuan lur-prospekzio bat egin eta bertan Martxoaren 31ri loturiko hobi komunik ba ote dagoen ikertzeko. 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketan, 336 hildako zenbatu zituzten. Eurretariako asko kanposantura eramán zituzten egun hartan eta hurrengo egunetan, eta uste denaren arabera hobi komunetan lurperatu zituzten. Durangoko Udalaren berbetan, 85-100 herritar egon litezke hilerriko hobi komunetan lurperatuta.

Kontua joan den udazkene-tik dator. Gerediaga elkarteak, Durango 1936 Kultur Elkarteak eta Durangoko Udalak pauso bat aurrera egin zuten biktimen familiartekoak eta ondorengoak bilatzeko ikerlana hasita. Dagoneko heldu dira emaitza batzuk. 84 biktimaren zerrendatik tiraka, 51ren izen-abizenak lortu dituzte. Eurretariako bi 1940ko hamarkadan lurpetik atera zituztela baieztatu

25 familia lokalizatzea lortu dute. Jimi Jimenez Aranzadiko kideak parte hartu du ikerketan

ahal izan dute eta guztien arte-tik 25 familia lokalizatzea lortu dute. Besteak beste, Jimi Jimenez Aranzadiko kideak parte hartu du ikerketan. Udalak adierazi duenez, "identifikaturiko 51 biktimen

Hilerrian lur-prospekzioa egiteko baimena jaso dute, bonbardaketako hobi komunik ba ote dagoen ikertzeko

Gogora institutuak baimena eman dio Durangoko Udalari hilerrian egon daitezkeen hobi komunak ikertzeko eta lur-prospekzio bat egiteko. Ustezko hobi komunetan Martxoaren 31ko biktimak egon litezke, 85etik 100 artera



Gerediaga eta Durango 1936 kultur elkarteetako kideak eta Durangoko udal agintariak Kurutziazako memoriaren monolitoaren aurrean.

artean 34 gizonezkoak dira eta 17 emakumezkoak. 10 pertsona 15 urtetik beherakoak dira. Jatorriari dagokionez, 25 pertsona Durangal-

dekoak dira eta beste 26 eskualde-tik kanpokoak. Eta biktima zibilak 31 eta gudariak 20 dira". Ikerketa zabalik dago oraindino.

Lantalde berria

Bestalde, Durangoko Udalak memoria historikorako lantaldea osatu du. Talde iraunkor bat

sortu du, "memoria historikoak izan ditzakeen askotariko ertzak sakonago" lantzeko. "Senideekin egin dugun lehenengo bilera hau prozesu luzeago baten lehenengo urratsa izango da, etorkizunera begiratzeko, lehenengo eta behin, iragana ezagutu eta bere garrantzia nabarmendu behar dugulako, batez ere belaunaldi berriei begira", adierazi dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julian Rios alkateordeak.

Udalak memoria historikorako lantaldea osatu du gaia modu "sakonagoan" lantzeko

85 urte aurtan

2022 honetan, 85 urte beteko dira Durangoko bonbardaketa gertatu zenetik. Udalak urte osoko egitarau bat antolatuko duela iragarri du. "Bada ordua gai honi heltzeko eta faxistek orain 85 urte erail zituzten herritarrak modu duin batean oroitzeko", esan dute udal agintariek. Gobernu taldeak orain artekoa baino "lanketa zabalagoa" egin gura du.

Arte eta Historia Museoak inoiz baino bisitari gehiago jaso zuen iaz: 17.681 lagun

Erakusketarik bisitatuena 'Darío de Regoyosen Durangoko Begirada Inpresionista' izan da. 3.292 bisitari izan ditu




Iazko erakusketarik bisitatuena Darío de Regoyosena izan da.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Arte eta Historia Museoak 25 urte bete ditu aurtan eta ospakizun horregaz batera bisitarien kopuruak gora egin du. 17.681 lagunek bisitatu dute, inoiz baino gehiagok. Iazko erakusketarik bisitatuena Darío de Regoyosen *Durangoko Begirada Inpresionista* izan da. 3.292 bisitari izan ditu eta berau izan da, era berean, museoaren historian gehien bisitaturiko erakusketa. Besteak beste, erakusketa horren parte izan da udalak eta museoak eskuraturiko *Merkatua Durangon* koadroa.

Udalak azaldu duenez, iaz museora jon ziren bisitarien %62 Durangaldetik etorritakoak izan dira. Guztira, 57 bisita gidatu egin zituzten eta 490 lagunek hartu zuten parte bisitaldi horietan. Udalak adierazi du museoa "norabide onean" doala eta aurreantzean ere lanean jarraituko duela "kulturalki herri aberatsagoa, erakargarriagoa eta oparoagoa" sortzeko.



22. Korrika apirilaren 1ean pasatuko da Durangaldetik, goizaldean

Martxoaren 31n Amurrión hasi eta apirilaren 10ean Donostian amaituko da Korrika



2019ko argazkia. ANTON IZAGIRRE

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

AEK-k asteon jakinarazi du zein izango den 22. Korrikako ibilbidea eta noiz pasatuko den herri baikoi-tzetik. Eskualdetik apirilaren 1ean igaroko da, goizaldean. 22. edizioa Zornotzatik sartuko da Durangaldera, eta Iurretatik, Durangotik, Abadiñotik, Atxondotik, Elorriotik, Berriztik eta Zaldibarretik ibili eta gero, Mallabitik irtengo da.

**Aurtengo edizioa
Zornotzatik sartuko
da eskualdera eta
Mallabiatik irtengo da**

22. edizioa martxoaren 31n hasiko da, 16:30 aldera. Ekitaldi bat egingo dute lehenengo, eta Korrikaren amaieran irakurriko duten mezua eskurik esku ibiliko den lekukoan sartuko dute. Lekukoa apirilaren 10ean helduko da bere helmugara, Donostiara. Hantxe irakurriko dute mezua. Horrez gainera, Donostian Pirritx, Porrotx eta Marimots pailazoak omenduko dituzte.

ORDUTEGIA

- **ZORNOTZA:**
03:29
- **IURRETA:**
04:44
- **DURANGO:**
05:11
- **ABADIÑO:**
06:00
- **ELORRIO:**
06:55
- **BERRIZ:**
07:40
- **ZALDIBAR:**
08:10
- **MALLABIA:**
08:36

Hasi dira Zornotzako Kaitana plaza eta Santa Ana batuko dituen igogailua eraikitzen

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udala dagoeneko hasi da Kaitana plaza eta Santa Ana Andrandi eta Jauregizahar au-

zoein batuko dituen igogailua eraikitzen. Igogailu berriak irisgarriago ipiniko ditu udalerriko erdigunea eta goialdean geratzen

diren auzoak. Udalak 780.000 euro ipini ditu egitasmorako, eta, aurreikuspenen arabera, lanek sei hilabete iraungo dute. Proiektuak, igogailuaz gainera, ingurunean urbanizazio obra osagarriak egitea ere aurreikusten du. Igogailuaren nukleo bertikala mendi-hegalean erdi lurperatuta abiatuko da eta pasabide horizontal batez elkartuko da, puntu biak elkarregaz lotuta. Horretarako, beheko eremua birdiseinatuko dute. Igogailua ipintzeko ideia aurrekontu parte hartzaileetatik eratorritakoa da. Andoni Agirrebeitia alkateak dioenez, goialdeko auzoetan bizi diren edadeko herritarren "aspaldiko eskaria" izan da. Igogailuak haien mugikortasuna errazten lagunduko duela dio.



Udalak egindako aurkezpenean igogailuaren obrak hasi aurretik.

Taxi Auzunea zerbitzurako txartela berrizteko epea zabaldu dute Iurretan

Otsailaren 1etik aurrera, udalak emandako erabiltzaile-txartel berria aurkeztu beharko zaio gidariari

IURRETA • AITZIBER BASARI

Iurretako Udalak Taxi Auzunea zerbitzua erabiltzeko txartela berrizteko epea zabaldu du. Erabiltzaileek urtarilaren 31ra arte izango dute aukera txartela berrizteko. Otsailaren 1etik aurrera, udalak emandako erabiltzaile-txartel berria aurkeztu beharko zaio taxi gidariari.

2009an ipini zuten martxan Taxi Auzunea, hiriguneko zerbitzuak landa-guneetara heltzeko eta ibilgailu pribatuaren zentzuzko erabilera sustatzeko. Iaz, 170 txartel banatu zituzten eta hilean 200 bidaia egin zituzten

batez beste (abuztuan ez dago zerbitzurik). Astelehenetik bari-kura 07:30etik 20:00etara ema-

**Astebarruan 07:30etik
20:00etara ematen da
zerbitzua; zapatuetan
09:00etatik 14:00etara**

ten da zerbitzua, eta zapatuetan 09:00etatik 14:00etara. Bidaiaren prezioa euro bikoa da eta honako telefono zenbakira deituta ipini daiteke hartu-emanetan taxi-gidariagaz: 688 618 690.

Aina Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

DIBA
KOOPERATIBA

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA

Matrikulazio epea zabalik:
Urtarrilaren 17tik 28ra
bitarte
Ate irekiak:
Urtarrilaren 15ean,
goizean zehar

Eman izena kurutziagaikastola.eus
atarian edo 946 200 822 telefono
zenbakira deituta.

ESKAINNTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus





Maria Herrero eta Idoia Buruaga Kurutziaga bidegurutzean.

Elorrion Kurutziaga inguruan bidegurutze berria ala biribilgunea?

Elorrioko Udala Kurutziagako bidegurutzea berritzeko proiektua lantzen dabil. Udalak proposaturiko proiektuetatik eurentzat onena dena aukeratu ahal izango dute herritarrek

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean egindako prentsaurrekoan, Idoia Buruagak eta Maria Herrero Kurutziagako bidegurutzea berritzeko proiektua zehazteko prozesu parte hartzailearen berri eman zuen. Bertan jakinarazi zutenez, trafikoko arazoei amaiera eman eta mugikortasun seguruagoa lortzeko asmoz ipini dute martxan prozesua. Hori horrela, dauden aukera bien artean hautatzeko aukera izango dute elorriarrek: bidegurutze berritua ala biribilgunea. "Azken urteetan zenbait

jarduketa egiten gabilta Kurutziagako bidegurutzean. Ikusita jarduketa horiek nahikoa ez

Elorriarrek urtarrilaren 31ra arte aukera izango dute proiektu bien artean gogokoena aukeratzeko

direla, azken hileetan bidegurutzea berrantolatzeak aukerak aztertzen aritu gara. Orain, proposamen bideragarri bi ditugu

eta horiek aurkeztu eta herritarrekin kontrastatu gura ditugu, berriro ere haien iritzia jakiteko, gure herrirako oso proiektu garrantzitsua da eta", azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

Buruagak eta Maria Herrero alkateordeak prentsaurrekoan azaldu zutenez, proiektu biek abantailak eta desabantailak dituzte. Horien berri astean eman diete herritarrei, Iturri Kultur Etxean egindako batzar irekian. Eta orain, urtarrilaren 31ra arte proiekturik gogokoena aukeratzeko aukera izango dute.

Hiru bizikleta elektriko Elorrioko Udaleko langileek erabiltzeko

Elorrioko Udalak bat egin du Durangaldeko Mankomunitateak eta Orbeak sustaturiko ekimenagaz

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mugikortasun jasangarria sustatzeko, Elorrioko Udalak bat egin du Durangaldeko Mankomunitateak eta Orbeak sustaturiko ekimenagaz, eta dagoeneko hiru bizikleta elektriko ditu Elorrioko Udaleko langileen artean bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko asmoz. Hori horrela, Elorrioko Udaleko langileek bizikleta elektrikoak erabili ahal izango dituzte garraio jasangarri eta ez-kutsatzailerako alternatiba lez.

Udaletik jakinarazi dutenez, Orbeak utzitako bizikletak urtarrilaren 25era bitartean erabiliko dituzte, eta udala Cycle Friendly Employer ziurtagiria duen erakundea den aldetik, udaleko langileek bizikletan egindako joan-etorriak erregistratuta geratu beharko dira.

Bestalde, bizikleta elektrikoen erabilera egokia bermatzeko, udaleko langileek formakuntza saio bat egin behar izan zuten joan zen astean.



Udaleko langileek formakuntza jaso zuten.

Saharara bidaltzeko materiala biltzen dabilta Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtarrilaren 8tik, Sahararen Aldeko Euskal Karabanaren hamaseigarren edizioarako material biltzeko egiten dabilta Berrizen. Material biltzeko honen antolatzaileek jakinarazi dutenez, sahararren errefuxiatu kanpamentuetara bidaltzeko janaria eta materiala urtarrilaren 22ra arte batuko dituzte, herriko zenbait dendatan.

Ekimenaren bultzatzaileek adierazi dutenez, pasta, arroza, azukrea, baba, hegazuak, oliotan, garbantzuak, dilistak, eta konpresak dira egun hauetan batu gura duten materiala.

Azaldu dutenez, laguntza hau jasoko duten lagunek kanpoko laguntza baino ez dute goseari aurre egiteko. "Beraz, zure laguntza behar dugu", esan dute.



BI-3336 errepidea zeharbide bihurtzen dabilta.

Atxondotik igarotzen den BI-3336 errepidea zeharbide bihurtzen dabilta

Lanak 716.650 euroko aurrekontua dute eta udalak Fhimasa enpresari esleitu zizkion; Aldundiak ordainduko ditu lanak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtarril hasieran hasi ziren Atxondo paretik doan BI-3336 errepidea zeharbide bilakatuko duten lanak egiten. Zeharbide berria Cemosan enpresako sarbideetik Santa Katalina zubiraino helduko da. Lan horiekin errepide ondoko espaloiak handituko dituzte eta autoen abiadura gutxitzeko neurriak hartuko dituzte, besteak beste. "Horri eskerrak, tarte hori oso kale segurua izango da atxondarrentzat", azaldu dute Atxondoko Udaleko ordezkariak prentsa ohar baten bitartez.


Atxondoko udabaltzak joan zen uztailaren eman zien argi berdea lanei, eta azaroan Fhimasa enpresari esleitu zitzaizkion,

Udaleko kideen berbetan, lanei eskerrak kale hori "segurua" izango da atxondarrentzat

716.650,45 eurotan. Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko ditu lanak, eta uda baino lehenago amaituta egotea aurreikusten dute, oharrean zehazten denez.



Ostalaritza gida



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!

**Durango**



OIERDI
Herriko gudarien 8, DURANGO
Tel.: 946 129 824
Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.

**Durango**




AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari Etxetaldea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

**Durango**



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185
Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



Trabakuko errepideko lur-jausi biez gainera, Mallabiko auzoetan beste hiru luizi gertatu dira azken hilean

Azkenaldian, Herrigunetik Urtia industrialdera doan errepide ondoan eta Gereaa eta San Juan auzoetan gertatu dira lur-jausiak

MALLABIA • J.D.

Abendutik hona Trabakuan gertaturiko lur-jausi biek zeresana eman dute, lurra errepidera jausi delako eta trafikoa eragozpenak sortu dituztelako. Baina azken asteetako euriteek beste hiru lur-jausi ere eragin dituzte Mallabian, eta horietan sorturiko kalteak konpontzen dabil udala.

Hiru lur-jausietatik handiena herrigunetik Urtia industrialdera doan bidean gertatu zen, abendu erdian. Kalteak konpontzeko, proiektu bat egin dute, 50.000 euroko aurrekontuagaz, eta konponketak "ahalik eta arinen" egitea da asmoa. Igor Agirre alkatearen esanetan. Beste lur-jausi bat Gereaa auzoan izan da, Longa

auzora doan bidearen ondoan. Azterketa geotekniko bat egin eta gero, zenbait alternatiba baloratzen dabilta konponketak egiteko. Hirugarren lur-jausia San Juan auzoko landa batean gertatu da. Joan zen astean, Aldundiko arduradunekin batu ziren lur-jausiaren ondorioak bertatik bertara ikusteko.



Mallabiko herrigunetik Urtiako industrialdera doan errepidean gertaturiko lur-jausiaren irudia.



Goian, Gereaa auzoko lur-jausia. Behean, San Juan auzokoa.

Mobidurangaldea sustatzeko, ekimen berriak antolatuko dituzte Mañarian

Taldekako ekintzak antolatuko dituzte ekimenera herriko jende berria erakartzeko

MAÑARIA • J.D.

Adinekoei jardura fisikoa egiteko orientazioa eskaintzen dien Mobidurangaldea ekimena iaz eskaini zuten lehenengoz Mañarian. Mañariar biri eskaini zieten zerbitzua. Mankomunitateko langileak adineko bien etxeetara joaten ziren zerbitzua eskaintze-

ra. Azterketa bat egin eta gero, hilero zenbait ariketa proposatu eta jarraipena egiten zieten.

Aurten ere badabilta zerbitzua eskaintzen Mañarian. Dalda Baraiazarra, zerbitzua eskaintzen duen aditua, eguaztenero egoten da udaletxean, 09:00etatik 11:30era. Aurtengo helburue-

tariko bat ekimenari bultzada berri bat ematea eta jende berria erakartzea dela azaldu du Baraiazarrak. Horretarako, hurrengo hileetan taldekako zenbait ekimen martxan ipintzeko asmoa dute. Horrez gainera, iaz eskaintzen zituzten zerbitzu guztiak eskaintzen jarraituko dute.



Eguazten goizero Mañariko udaletxean eskaintzen dute zerbitzua.



Bide zati horretarako sarrera hesiekin itxi dute.

Iturizarretik Bolalekurako bidea itxita, kalteak konpondu arte

Azken hileetako euriteek kalteak eragin dituzte Otxandion

OTXANDIO • J.D.

Azken hileetan izan diren euriteek eragindako uriolek lortatza utzi dute Otxandion ere. Esaterako, abenduko euriteetan autobus geltoki pareko errepidea eta Antomentako zubia itxi egin behar izan zituzten urez beterik zeudelako. Horrez gainera, euriak eragindako kalteak direla eta, Otxandioko

Udalak Iturizarretik Bolalekura doan bidea ixtea ere erabaki du, "herritarren segurtasuna bermatzeko", udal ordezkarien esanetan. Bide zati hori erreka baten ondoan dago eta horren eraginez sortu dira kalteak. Udaletik informatu dutenez, erreka ertzak egonkortu bitartean ez dute berririo zabalduko Bolalekura doan bide zati hori.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

San Blas eguneko azoka berreskuratuko dute Abadiñon. Hala ere, ez da ohiko ospakizuna izango. Baserriko produktuen salerosketa eta ganaduen erakusketa, bai, egingo dute; baina ez dago kultur programaziorik, kale animaziorik edo txosnarik.

Azokak lau gune bereizi izango ditu. Ohikoa den moduan, gune nagusia trinkete inguruan egongo da. Bertan, baserriko produktuen salerosketarako gunea atonduko dute. 80 bat ekoizle batzea aurreikusi dute. Bigarrena artisautza azoka izango da. Ferialekuaren ondoko aparkalekuan ipiniko dute, 20 standekin. Hirugarrena abeltzaintza gunea izango da. Trinketearen atzealdean egongo da, urtero lez. Eta, azkenik, baserri lanetarako makinen gunea ipiniko dute, Gaztañodi parkearen bueltan. Erroskilla, kordel eta San Blas opilei dagokienez, udalak azaldu du postu horiek egon egongo direla, baina kopuru mugatu batez.

Txosnarik ez

Udalak jakinarazi du "pilaketak saihesteko" ez dutela kultur programaziorik antolatuko eta ez dutela txosnarik baimenduko. Idi probak, osterak, bai, egongo dira. Probalekura sartzeko, COVID

Iazko etenaldiaren ondoren, Abadiñoko Udalak San Blas azoka antolatuko du berriro

Otsailaren 3koa ez da ohiko azoka izango; baserriko produktuak eta ganadu erakusketa baino ez dira egongo



2020ko San Blas azokako argazkia.

ziurtagiria aurkeztu beharko da. "2021ean azoka bertan behera uztea erabaki gatazta izan zen, eta aurreko urtean ere gatazta izan da berriro egitea erabakitzea", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak. "Baina

gure lehen sektorea babestu behar dugula uste dugu, sasoi izugarri gogor eta konplikatuan", gaineratu du. Musukoa erabiltzera eta segurtasun distantziak mantentzera deitu du.



Autodefentsa feminista ikastaroa Zaldibarren

Zaldibarko Udaleko Berdintasun sailak antolatuta, autodefentsa feminista saio bi egingo dituzte

ZALDIBAR • A.M.

Berdintasun Sailak antolaturiko autodefentsa ikastaroa berriro ere martxan ipiniko dute gaur; 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da, liburutegi zaharrean. Izen-ematea berdintasuna@zaldibar.eus helbidera idatzita edo 946 827 016 telefono zenbakira deituta egin daiteke. Adin txikikoen zain-

tza zerbitzua ere egongo dela esan dute. Bigarren saioa urtarilaren 31n izango da.

Izen-ematea Berbalagunen

Bestalde, Zaldibarko Berbalagunek berriro zabaltu du izena emateko epea; urtaril osoan zehar eman daiteke, email eta telefono bidez.



BETI GERTU!



ELORRIORA



HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta



Lazaro Milikuak dinamizatu zuen erremata.

Iazko kopurua handituta, 820 euro batu dituzte Garaiko errematan

Astelehenean errematan baturiko diruaren erdia Caritasi emango diote. Beste erdia parrokiarentzat izango da

GARAI • EKAITZ HERRERA

Iaz frontoira lekualdatu behar izandako errematak bere betiko esentzia errekupeatu du aurten. Garaitarrek Elizabarriko elizpean elkartuta egin dute enkantea. Autentikoa, betiko eran egindakoa: San Anton egunez, Elizabarriko meza amaitutakoan, eta baserriko produkturik freskoenak eskuratzeko norgehiagokan mokoka. Ohikoa den moduan, denerik egon da enkantean. Hasi baba, txorizo, kiwi bete otzara eta pasteekin, eta

ardi-esne, behi-esne, gazta, untxi eta urdaiagaz amaitu.

Garaitarrek Elizabarriko elizpean elkartuta egin dute aurtego enkantea; betiko eran

Astelehenean baturiko diruaren erdia Caritasi emango diote, eta beste erdia elizari, honek San Estebanen irudia berritzeagatik lanak finantzatu ditzan.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Durangoren etorkizuna jokoan

2021. urtea berri pozgarri batekin amaitu dugu, Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak PERI Ferrocarril-aren inguruko aurreakordioa adostu dute. Durango erdian dugun landa erraldoi horretan aurreikusita zeuden 5 dorreak ez egitea lortu da.

Etxebizitza gutxiago egiteaz gain, Durangon Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Zuzkidura etxebizitzak eraikiko dira. 2015eko Euskadiko Etxebizitza Legearen arabera, lehenengoak alokairu-erregimenean eskaini behar dira eta bigarrenak eskubide hau eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat dira, hala, gazteak, etorkinak, indarkeria matxista jasan duten emakumeak, adineko pertsonak etab.

Aurreakordio honi esker, Durangok duen alokairurako merkatuaren arazoa leunduko litzateke. Merkatuan zenbat eta alokairurako etxebizitza gehiago egon, orduan eta aukera gehiago egongo baitira prezio duin bat lortzeko. Horrela, gaur egun herrian bizi ezin duten gazte eta ez hain gazteek bertan bizi ahal izango dira.

Informazio gehiago izateko, Ezkurdin jarri den erakusketara joan daiteke, eta baita datorren larunbat eta igandean, urtarrilaren 22an eta 23an, egingo diren saioetan izena eman, gerora egingo den parte-hartze prozesura guztiz dokumentatua heltzeko.

Nik argi daukat, aukera honen alde bozkatuko dut. Eusko Jaurlaritzak gure herrian milioika euroko inbertsioa egiteaz gain, gaur eguneko etxebizitza parkearen prezioa leunduko baitu, eta 15 urte baino gehiago hutsik egon den lursaila herrira bueltatuko baita.

Durungaldea asteen

Elorrioko zortzi kirolarik banakako kirolerako laguntzak jaso dituzte

Elorrio | Elorrioko Udalak konpromisoa hartu zuen laguntza ekonomikoak emanda kirola sustatzen jarraitzeko eta herriko kirolariei kirol jarduerak eragindako gastuei aurre egiteko. Bada, banakako kirola egiteko diru laguntzak ematea onartu du. Horrela, 2021ean lehiaketa ofizialetan banaka parte hartu duten herriko zortzi kirolariri diruz lagunduko die.



Hiru udaltzain postu berri Durungaldean: Abadiñon, Zornotzan eta Durangon

Durungaldea | Abadiñon, Zornotzak eta Durangok Ertzaintza eta udaltzaingoa sartzeko Euskadiko deialdi bateratuagaz bat egin dute, eta hiru herriek plaza bana eskainiko dute udaltzaingoa indartzeko. Izena eman gura duenak www.arkauteakademia.eus webgunean sartu behar du, eta hantxe apuntatu.



Durangon kontzentrazioa egin dute Tuterako erailketa matxista salatzen

Durango | Joan zen zapatuan, kontzentrazioa egin zuten Andra Marian, Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak deituta. Elkarretaratzearen helburua Tuterako erailketa matxista salatzea zen. Urtarrilaren 10ean, foruzainek eta suhiltzaileek 38 urteko emakume baten gorpua aurkitu zuten Tuteran (Nafarroa). Hasieratik, emakumearen senarra izan zen hilketaren susmagarri nagusia, eta Boiredon (Frantzia) atzeman zuten. Asteon, Poitierseko (Frantzia) epaitegiak eta Tuterako Instrukzio 2. Aretoak jakinarazi dute 38 urteko emakumearen senarra Nafarroara estraditatu duela. Durangoko elkarretaratzeaz gainera, eskualdeko beste hainbat herritan ere egin dituzte.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RP5: 145-13



URTARRILAK 28 ENERO

"Pippi" haurrentzako ipuin-kontalaria
PERU MAGDALENA ARRIAGA
17:00 3-5 urte (lagundurik)
17:45 6 urtetik gorakoak

OTSAILAK 4 FEBRERO

"Askatu mototsak" dantza tailerra
INALVIS ECHEVARRIA PANDO (Cuba)
16:00-17:00 DBH
17:00-18:00 LH3-LH4
18:00-19:00 LH5-LH6

Ekintzetan izena emateko: 94 681 27 26
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus / WhatsApp 688 86 37 36



Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BILKIDETZA



NOR DA?

Lekuko bati eskerrak, harribitxi batzuk ostu dituen
lapurraren deskribapena dugu:
Beheko irudiko nor da?


Gizonezkoa
Gaztea
Argala
Altua
Ile kolorea: beltza



SUDOKUA


Kokatu beheko harribitxiak
lauki zurietan.




6'6
6'4
6'2
6'0
5'10
5'8
5'6
5'4
5'2
5'0
4'10
4'8

LOTU ITZAZU

Lotu ezazu dinosauro bakoitza bere kumetxoagaz.



LABIRINTOA



ZENBAT DAKIZU?

Zenbat urtean bizi izan ziren dinosauroak Lurrean?

- a-) 20 urtean
- b-) 160tik 180 milioi urtera bitartean
- c-) 10.000 urtean



'Pinocchio'

ANTZERKIA **ELORRIO** :: **Urtarrilak 23**

Pinocchioren abenturak, Canti Vaganti konpainiaren eskutik

Canti Vaganti konpainia italiar-holandarrak Carlo Collodiren ipuin gordin bezain komikoa eraman du oholtzara: *Pinocchio: eldarniozko istorioa*. Umorea, objektu-antzerkia eta soinu banda originala erabiliko ditu Pinocchioren abentura zoragariak kontatzeko; eta narratzailerak lanak egingo dituen Alberto

San Juanen ahots beroa ere bai. Arriskuz beteriko gizartean lurreratu den izaki desberdin baten istorioa kontatzen duen obra Arriola antzokian egongo da ikusgai, domekan, 17:00etan. Aparteko esperientziak biziz eta pertsonaia groteskoekin topo eginez, Pinocchiok "beste modukoa" izaten ikasiko du.

Urtarrilaren 21ean

ABADIÑO ipuin kontalaria **'80 Amandre' (Dorleta Kortazar ipuin kontalaria)**, 19:00etan, Txanporta kultur etxean. Helduentzako saioa. Sarrerak Errota kultur etxean eta Txanporta kultur etxean.

BERRIZ antzerkia **'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' (Gorakada)**, 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

IURRETA tailerra **'Piratartistak' arte adierazpen tailerrak (Onditz Mendizabalek gidatuta)**. LH1-LH6 eta DBHko ikasleei zuzenduta. Hiru saio egingo dituzte, 15:15etik 19:45era. Izena eman behar da aldeztasunetik.

Urtarrilaren 26an

IURRETA berbaldia **'Aizkorriko kanalak'**, 19:00etan, Goiuria kultur gunean. Hizlaria: Xabi Mujika 'Smithy'. Zaldaik antolaturiko Mendi Astearen barruan.

IURRETA irakurketa kluba **'Pipi Galtzaluze' (Astrid Lindgren)**, 17:00etan eta 18:00etan, herri bibliotekan. LH3-LH6 bitarteko neska-mutilei zuzenduta. Peru Magdalenak gidaturiko *Paperezko Hegoak* haurren irakurketa klubaren barruan.

Urtarrilaren 26an eta 27an

DURANGO artea **'Mari Puri Herrero' gaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak' (Mari Puri Herrero) erakusketaren bisita gidatua**, 18:00etan (26an euskaraz eta 27an gaztelaniaz), Arte eta Historia Museoa. Izena eman behar da: 94 603 00 20 telefonoan edo museo@durango.eus posta elektronikoa.

Urtarrilaren 27an

DURANGO musika **'Sustraiak adarretan' diskoaren aurkezpena (Ander Ertzilla)**, 19:00etan, San Agustin kultur gunean. Proiektuak Durango Sor(tzai)leku bekaren laguntza jasotzen du.

IURRETA dokumentala **'Pamir, distantziak'**, 19:00etan, Goiuria kultur gunean. Ondoren, hitzaldia, Joseba Iztueta Dorronsororen eskutik. Zaldaik antolaturiko Mendi Astearen barruan.

Urtarrilaren 28an

ELORRIO antzerkia **'A.K.A. Also Known As' (Franvila Producciones konpainia)**, 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA sari ematea **'Zaldai Mendi Erronka 2021'. Finalisten sari ematea**, 19:00etan, Askondoko aterpean. Zaldaik antolaturiko Mendi Astearen barruan.

IURRETA ipuin kontalaria **'Pipi' (Peru Magdalena)**, 17:00etan, 3tik 5 urtera arteko umeentzat (heldu batek lagunduta), Ibarretxe kultur etxean. Sei urtetik gorako umeentzako saioa, 17:45ean. Aurretik izena eman behar da.

Urtarrilaren 29an

BERRIZ antzerkia **'Semea pixka bat motelago dabil soilik' (Ttamtaka)**, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia **'Ese no!' (Banarte)**, 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

IURRETA bizikleta martxa **'Basatzen' lurretako IV. Bizikleta Martxa**, 10:00etan, Askondoko aterpetik. Izena emateko: www.kirolprobak.com webgunean (7euro) edo egunean bertan (10 euro). Diru guztia Angelman Sindromearen elkartearentzat izango da. Zaldaik mendi taldeak antolaturiko Mendi Astearen barruan.

IURRETA mendi irteera **Gallandara frontalekin**, 18:00etan, Askondoko aterpean hasita. Umeekin egiteko moduko ibilbidea. Txikienak bidearen erdian batzeko aukera egongo da, Lukuarrietatik hasita. Zaldaik antolaturiko Mendi Astearen barruan.

ZORNOTZA antzerkia **'A.K.A. Also Known As' (Franvila Producciones)**, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urtarrilaren 29ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa **'Zabalik' (Kandela Sormen Gunea)**, Zelaieta Zentroan. Zornotzako komertzioen historia erakusten duten argazkiak.

Otsailaren 20ra bitartean

DURANGO artea **'Mari Puri Herrero' gaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak' (Mari Puri Herrero)**, Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Cerca de ti**
barikua 21: 19:30
domeka 23: 19:30

:: Durango ZUGAZA

• **El callejón de las almas perdidas**
barikua 21: 19:30
zapata 22: 18:00/21:00
domeka 23: 16:45/19:00
astelehena 24: 18:30
martitena 25: 19:00
eguztina 26: 18:30

• **Agente 355**
barikua 21: 19:30
zapata 22: 19:00/21:30
domeka 23: 19:30
astelehena 24: 18:30
martitena 25: 18:00/20:15

• **El Método Williams**
barikua 21: 19:30
zapata 22: 18:00/21:00
domeka 23: 16:45/19:30
astelehena 24: 18:30
martitena 25: 19:00
eguztina 26: 18:30

• **Trash (euskaraz)**
zapata 22: 17:00
domeka 23: 17:00

• **Luisa Fernanda**
eguztina 26: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Libertad**
zapata 22: 20:00
domeka 23: 20:00
astelehena 24: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Aztarnak**
barikua 21: 20:00

• **Vuelta a casa de mi hija**
zapata 22: 20:00
domeka 23: 20:00
astelehena 24: 20:15

• **Ilargirantz**
zapata 22: 17:00
domeka 23: 17:00

• **Seis dias corrientes**
martitena 25: 20:15



“Denok gara gai bakarka lan egiteko, baina talde lanak balio erantsi bat ematen die proiektuei”

'Zabalik' da Kandela sormen gunearen lehenengo erakusketa. Proiektu honek argazkilaritza analogikoa jorratzen duten hiru gazte zornotzar batzen ditu

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO
Iratxe Etxeandia, Ane Berriotxo eta Markel Suarez zornotzarren pasio handietariko bat argazkilaritza analogikoa da. Hirurek hartu-eman dute ikus-entzunezkoekin eta baita musikagintzagaz ere, baina diziplina konkretuetara mugatu barik, herriko sortzaileak batuko dituen gune bat eskaintzea gura dute besteak beste, elkarlana lehenesten dutelako. Kolektiboak urtebete darama martxan, eta tarte honetan Zornotzako eta Euskal Herriko hainbat artistagaz lan egin dute.

Orain urtebete sortu zenuten Kandela sormen gunea. Zein helburugaz?

Markel Suarez: Orokorrean, Zornotzan kulturgintzarako espazio gabezia dagoela uste dugu. Gure zaletasuna argazkilaritza da, eta, horretarako, gune bat behar genuen. Gune hori hartu eta herrira zabaltzea erabaki genuen.

Iratxe Etxeandia: Sorkuntzarako eta elkarlanerako espazio bat eskaintzea da gure asmoa. Gu ere nora edo norengana jotzeko aukerarik barik egon gara, eta horri erantzuteko modu bat ere bada.

Herri txikietan zaletasunak partekatzen dituzun jendeagaz elkartzeari ez da erraza izaten

Ane Berriotxo: Gaztetxea hor dago, esate baterako, baina, hortik aparte, Zornotzako eskaintza kulturala oso instituzionala da. Gabezia hori ikusten genuen eta espazio honegaz hori betetzen ahalegindu gara.

I. E.: Gure kasuan, argazkilaritza analogikora bideratuta dago gure zaletasuna. Horrek ez du esan gura sormen gunean ez dagoela tokirik bestelako diziplina artistikoetarako. Horma zuri bat dugu lokalean, erakusketak egiteko helburuagaz.

M.S.: Gure proiektuetarako, Zornotzako beste sortzaile batzuk ere kontuan hartzen ditugu; adibidez, Erika Barrenetxea ilustratzaileagaz lan egin dugu. Bestalde, 'Zabalik' erakusketako testuak Ane Alegriak idatzi ditu.

A.B.: Ematen du Zornotzan sortzaile gutxi dagoela, baina sarri, kanporantza proiektatzen delako izaten da uste hori. Hemen ez dago lekuri sorkuntzarako, eta egiten denari ez zaio ikusgarritasunik ematen; hortaz, ikusgarritasun hori beste nonbait ematea bilatzen dute sortzaileek. Guk horri buelta eman gura diogu.

M.S.: Gu honetara gaudenez, sortzaile asko ezagutzen ditugu, ilustratzaileak, dantzariak... denerik ezagutzen dugu, baina beharbada zornotzarrek ez dituzte ezagutzen.

I.E.: Izen handiak-eta ezagutzen dituzte, baina herrian bertan gazte asko dago talentu handikoa, eta Kandelaren helburuetariko bat hori ikustaraztea ere bada.

A.B.: Herri txiki batean, zaletasunak partekatzen dituzun jendeagaz elkartzeari ez da erraza izaten. Idaztea, musika... zaletasuna dena delakoa izanda, hartu-emanak puntu horretatik sortzerakoan zeozer berezia sortzen da.

Musikagintzako artistekin ere aritu zarete lanean, Izero edo Merina Gris artistekin, adibidez.

I.E.: Gure esperientziagaz eta kontaktuekin lan egin izan dugu. Norbanako lez zein Kandela lez lan egiten dugu, proiektuen arabera, baina elkarlana lehenesten dugu.

Elkarlan horiek interesgarriak izango dira.

M.S.: Uste dugu horrelako proiektuetarako hobea dela taldean lan egitea, iritzi eta ikuspuntu desberdinak partekatzea, emaitza aberasgarriagoa izango delako.

I.E.: Oso ondo konplementatzen garela uste dut, baina ez da hori bakarrik. Denok gara gai bakarrik lan

egiteko, baina taldean egiteak balio erantsi bat ematen dio. Bakoitzaren indarguneak ere identifikatuta ditugu, eta horrek batura bat egiten du. Uste dugu horrela lan profesionalagoak geratzen zaizkigula, gainera.

M.S.: Hasieran, lokala lan edo proiektu pertsonalak garatzeko helburuagaz hartu genuen, baina proiektu amankomunak irten dira bertatik. Norbanako modura xurgatzen dugun dena Kandela iraultzen dugu gero.

Egia da ere, argazkilaritza analogikoa izatera, lokal baten beharra ere bagenuela. Lekua behar da argazkiak errebelatzeko, horiek digitalizatzeko eta beste hainbat kontu

Analogikoa garestia da, eta, zoritxarrez, gazteen soldatak nahiko baxuak izaten dira

egiteko. Esan dugun modura, jendea gurera hurbiltzea gura dugu.

A.B.: Jendea gugana etortzea gura dugu, bai, prozesua eurak lantzea, hasi eta amaitu zelan egiten den ikusteko. Lagunak ditugu argazkikamera bat sekula hartu ez dutenak, eta gugaz egon eta gero kamera zaharra hartu eta eurenkontura ikasten hasi direnak.

Zergaitik argazkilaritza analogikoa?

I.E.: Zer irtengo den magia moduko hori ere badu prozesuak. Zeure esku dagoen dena egin dezakezu prozesuan zehar, baina emaitza zelakoa izango den amaieran baino ezin duzu jakin.

A.B.: Prozesuak eurak sekulako ekarpena dira, asko ikasten da bertan. Baina trabak ere baditu. Nahiko espezialitate garestia da, eta, zoritxarrez, gazteen soldatak nahiko baxuak izaten dira.

'Zabalik', dendariei aitortza egiten dien erakusketa

Zornotzako dendarien lana ikustarazteko asmoagaz, 'Zabalik' erakusketa ipini dute Zelaieta zentroan. Kandela Sormen Guneako kideen argazkiak daude ikusgai bertan; formatu analogikoan egin dute lan hau ere. Komertzio bakoitzaren argazkia Ane Alegriak idatziriko testu batek osatzen du. Honela, proiektuak hainbat diziplina jorratzen dituzten zornotzarrak batzen ditu. Argazkietan, denda horietako zenbait belaunaldi ageri dira, besteak beste; dendariaren eta bezeroen arteko

hartu-eman ere islatzen da erakusketako argazkietan. "Askok bizi osoa daramate lan edo negozio horretan, pandemiak neurri handian eragin die, eta euren bizia ezagutzeko eta lana aitortzeko modu bat da gurea. Azken finean, herria egiten dute eurek ere", azaldu du Markel Suarez Kandela kolektiboko kideak. Horrez gainera, erakusketa "erakusleihoa" ere badela aipatu dute, "herriaren historia" ezagutzeko baliagarria dena. Urtarrilaren 29ra arte egongo da ikusgai Zelaieta zentroan.

“Gure folkloretik eta herritik datorren ondare musikala gaur egunera ekarri gura izan dut”

'Sustraiak adarretan' deitzen da Ander Erzillaren proiektu berria; urtarilaren 27an aurkeztuko du San Agustinen

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Grabazioan, Ander Garciak, Iñaki Jaio, Haimar Arejitak, Julen Arbizuk eta Alvaro Jarautak parte hartu dute; Izaro eta Matxalen alabek ere parte hartu dute. Igor Elortza-ren, Unai Iturriagaren, Luigi Anselmiren eta Elena Olaveren berbak eta poemak ere agertzen dira.

Zer da 'Sustraiak adarretan'? Zertan datza?

Diskoak hiru hari ditu. Batetik, Amaraun proiektuagaz egin nuen moduan, gure folkloretik eta herritik datorren ondare musikala gaur egunera ekarri gura izan dut bat-batekotasuna erdigunean ipiniz, orduko materiala gaur egun baliagarria dela erakusteko. Bigarrenik, bertsogintzan, lehengo kantutegian, berbak musikari lotzen zitzaizkion, metrika musikaren menpekoagoak ziren. Unai-ren eta Igorren sorta horiekin, orduko kolore musikala eguneratu gura nuen. Hirugarren harian, poesiak musikatu gura nituen.

Zenbait belaunaldi batu zarete.

Nik suertea dut, diskoan parte hartu dutenak, musikari onak izateaz gainera, lagun onak direlako. Hori gehigarri bat da, jotzeko momentuan sortzen den konplizitateagaitik. Unaigaz eta Igorregaz aurretik ere lan egin dut. Elenaren lana Matxalen alabaren bitartez ezagutu nuen bere poesia, eta asko gustatu zitzaidan, hasieratik; doinu bati berbak ipintzea proposatuta, baiezkoa eman zuen. Bestalde,

“Ordubeteko kontzertua izango da eta diskoko abestien moldaketa bereziak egingo ditugu”

Luigi Anselmi Euskal Herriko poetarik nabarmenetarikoa iruditzen zait. Suerte a dut inguruan horrelako jendea edukita.



Durangoko Udalaren Durango Sor(tzaileen) Leku beka jaso duzu.

Aurretik ere banuen grabatzeko asmoa. Justu, uztailean atera zen udalaren deialdia, eta proiektuari askoz ere lasaiago ekiten lagundu dit, bai diseinu aldetik, eta baita kopiak ateratzeko ere, edo estudioa eta musikariei ordaintzeko. Kontuan hartu behar da horrelako proiektuetan gure poltsikotik ordaintzen dugula dena. Hori finantzatzeko, bigarren fasea zuzeneko kontzertuak lirateke.

Zelakoa izango da 27ko emanaldia?

Instrumentu guztiekin aurkeztuko dugu lana, baina ez dira egongo grabazioan parte hartu zuten instrumentu guztiak. Haimar ez da egongo, lan kontuengaitik, eta bere orde z Dani del Valle egongo da; durangarra da Dani, laguna eta musikari aparta. Borja Ruizek joko du tronboia, eta nire beste alaba Jonek tronpeta. Ordubeteko kontzertua izango da eta diskoko abestien moldaketa bereziak egingo ditugu.

Urtarrilaren 27tik aurrera, zer?

Bigarren fasea lana plazaratzea izaten da, jendaurrean aurkeztea. Baina gatxa da gurea lako proposamenak, genero bakarrean definiturik edo ez daudenak, kanpora ateratzea. Ez nago oso itxaropentsu, egia esateko. Azken finean, egin dugun lan guztia gero jendaurrean jotzeko egiten dugu. Ekurugaz egin genituen plaza batzuk, baina ez gehiegi, zortzi bat edo. Hainbeste lan hartzea, gero hori egiteko ere... CDak ere ez dira hainbeste saltzen gaur egun.

Gai librean

Turki burua

Erdi Aroan gurutzatuak eta turkiarrak elkarren aurkako borroka odoltsuetan aritzen ziren sarri. Kristaudentzat itzelezko meritua izaten zen turkiar bati burua moztea. Moztutakoa guztien bistan gorrotoz zintzilikatuta, soldaduek pairaturiko gaitz guztiak leporatzen zizkieten hildakoari. Ordutik esaten zaio norbaiti turki buru salaketa egiten zaionean, erruduna beste bat denetan. Itun Zaharrak ere akerraren metafora azaltzen du gaztelaniazko “chivo expiatorio” espresioaren sorrera emanez. Antzina-ko kontuak dira horiek, antza, baina ematen du geu-geugan dagoela norberea inori leporatzeko ihesbidea. Galdeiozue, bestela, Zalduondoko Markitosi, urtero inauterietan epaitu eta herriko gaitzen errudun gisa erretzen dutenari.

Horrelakoetan gertatzen denaz go-goeta egin dezagun, hots, bizkar gainera besteek emanikoa zamatzean gertatzen denaz.



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

Sentitu duzue inoiz ez duzuela zeuok aukeratu jokatzeko ari zaren rola? Makina bateko torloju edo mekanismo handi bateko pieza izatearen askatasun edo bakantasun falta antze-man duzue? Lasaitu gaitezen pentsatuz komunitateko kide izatearen prezioa dela. Geure burua taldeko izate horretatik interpretatuz gero eta ikustean taldeek beren eratzeko, funtzionatzeko eta garatzeko logika propioak dituztela, orduantxe jabetuko gara gertatzen zaigunaz.

Gizartean bezala txindurritegian ere rola banatzen dira etengabe: ondokoak bat hartu bezain pronto, gudan eragina izango du eta beste bat egokituko/leporatuko atoan. Txindurritegiko ehuneko hamarrena diren txindurri alferrekin talde berria osatuz gero, berri hartan ere ehuneko hamarrena izango da alferra. Ondorioz, aurrekoan alfer rola zuten batzuek rola aldatu behar izan dute berrian. Zenbat

egituratan ez ote du “txindurritegiko teoriak” gure jokabidea erabakitzen.

Animalia sozial egin gaituzte eta, ondorioz, gure autonomia ezinbestez da ez-autonomia. Saia zaitezke jokatzeko suertatu zaizunetik ihes egiten baina ezin izango duzu. Mundua den antzoki handian, Alice bazara, ez zara Untxi Zuria. Laukitxo hori egokitu zaizu jokomahaian.

Eguzkipeko tximeleta jostalaria dantzari ari da, beste izaki baten hurbilketak hegaka ihes egitera behartzen duen arte. Bestea baino politagoa, librea eta botere haundiagokoa izan daitekeen arren, engranaje sozialeko izatearen kontzientziak lasaitzen du tximeleta. Tokatu egin zaio. Turki burua da. Erruduna. Lehenago tokatu zitzairen zaharrei, haurrei, nerabeei, tabernazaleei, kirolariei eta ez txertatuei. Ez etsi: tximeleta efektua gure hego ahulen boterea da.

<https://josunearanguren.blogspot.com/>



**LIDE AZUETA
LIZAU**

Triatloilaria

DURANGO | 1998

Zer ekintza egiten dira helburuak lortzeko?

Hainbat ikastetxetan proiektu honen aurkezpena egin dut. Triatloiarren nondik norakoak azaltzen ditut. Gero, topaketak egiten dira kirola probatu gura dutenentzat. Esaterako, Durangon Kurutzia ga ikastolako eta Jesuitetako hainbat klasetara joateko aukera izan nuen, eta gero, abenduan, topaketa bat egin genuen Durangon. Bizkaiko beste herri batzuetako umeak ere etorri ziren. Goizean korrika saio bat egin zuten atletismo pistari, eta, ondoren, igeriketa saioa igerilekuan. Umeek triatloia zer den ikustea eta sentitzea zen helburua, eta gero Mugarra TTn edo beste eskola batean apuntatzera animatzen badira, bada, horixe da helburua.

Aurrera begira topaketa gehiago egongo dira?

Bai, aurrean Gipuzkoan eta Araban ikastetxeetan hitzaldiak ematen eta ondoren topaketa bana antolatzen ahaleginduko naiz. Behin fase hau amaituta, Espainiako Federazioak beste topaketa batzuk antolatzen ditu eta batzuek han parte hartzeko aukera izango dute.

Gustura zabilta lan honetan?

Bai, oso gustura. Mundu hau txikitatik gustatu izan zait. Umetan Mugarran nenbilenean, nire orduko entrenatzaileak ikusten nituen eta euren modukoa izan gura nuen. Hasieran bertigo apur bat ematen zidan, gauza berria zelako niretzat. Orain oso pozik nabil. Gainera, Mugarrako ki-deak beti ditut laguntzeko prest.

"Lortu dugun Urrezko Ziurtagiria urteetan egindako lanaren emaitza da"

Gazteen artean egindako lanaren errekonozimendu moduan, Mugarra Triatloi Taldeak Federazioaren Urrezko Ziurtagiria jaso du

TRIATLOIA • J.DERTEANO

Espainiako Federazioak Madrilen antolaturiko galara ziurtagiria jasotzera joan ziren kideen artean, Lide Azueta zegoen. Mugarra taldeak lorturikoa ez da edozelako marka: EAEn Urrezko Ziurtagiria jaso duen talde bakarra da.

Jasoriko saria urteetako lanaren kolofoa da?

Bai, lortu dugun Urrezko Ziurtagiria urteetan egindako lanaren emaitza da. Ez genuen espero, sorpresa izan da eta poz itzela eman digu. Mugarra Triatloi Eskola orain zortzi urte sortu zen eta hainbat entrenatzaile igaro da harrezkero. Gaur egun Paul Bereziartua eta biok gabiltza. Bide luze baten osteko saria da.

Ziurtagiria ematerako orduan, hama-bi adierazle kontuan hartu dituzte. Horien artean zeintzuk dira, zure ustez, Mugarra TTren indarguneak?

Hainbat dago. Esaterako, formakuntza. Mugarran lau teknikari gaude eta entrenatzaile titulua dugu denok. Gero, adierazleetarikoa bat berdintasunarena da, eta Mugarran oreka dago mutilen eta nesken kopuruan. Urtean zehar triatloia ezagutara emateko antolatzen ditugun ekintzak dira gure beste indarguneetarikoa bat.

Lehiaketari dagokionez, ostera, gazteek triatloiagaz gozatzea da gure helburua.

Zenbat gazte dituzue taldean?

7tik 20 urtera arteko 60 bat ditugu. Gazte asko ditugu aurrean, hazkunde bat izan dugu.

Zergaitik ote?

Beti esan izan da bakarkako kirolletara zaletzea gaxagoa dela. Baina pandemia sasoi honetan taldekako kirolletako entrenamendu asko bertan behera geratu direnean, triatloian mantendu egin dira, aire librean egin daitekeelako, eta horrek malgutasuna eskaintzen du. Bakoitzak ahal duenean egin dezake. Hori pizgarri bat izan dela uste dut.

Mugarra TTz gainera, Espainiako Triatloi Federazioaren Amazonas izeneko proiektuan zabilta. Zertan datza?

Orain lau urte hasi ziren proiektu honek, eta helburua 12tik 18 urtera arteko neskek triatloi mundura erakartzea eta lehendik dabiltzanei eustea da, adin tarte horretan emakume askok kirola uzteko joera dute eta. EAEn nazioarteko triatloi entrenatzaile titulua duen bakarrenetarikoa naizenez, nigar ipini ziren hartu-emanetan gure Autonomia Erkidegoan proiektua aurrera eramateko.

Gazte asko ditugu aurrean Mugarra taldean, 7tik 20 urtera arteko 60 bat lagun. Hazkunde bat izan dugu

Umetan Mugarran nenbilenean, nire orduko entrenatzaileak ikusten nituen eta euren modukoa izan gura nuen



Jone Aizpurua, Paul Bereziartua, Lide Azueta eta Serafin Bereziartua 'Txela'.

Sergio Moreno taldera batuta, Amorebietak aurrealdea indartu du

Rayo Vallecanotik datorren aurrelariak utzita jokatu du Zornotzako futbol klubean



Asier Goiria kirol zuzendaria eta Sergio Moreno, aurkezpen ekitaldian.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Erasoko jokoa indartzeko, Amorebietak Sergio Moreno aurrelaria batu du taldera. 23 urteko aurrelari nafarrak denboraldia amaitu arte jokatu du Zornotzako futbol klubean.

Atletico Madril eta CD Tenerifeko harrobietatik igaro eta gero, Morenok Vallecasetako klubean amaitu zuen bere kirol formakuntza. Talde nagusiagaz Lehenengo Mailan debuta egitea lortu zuen, 2018an, Wanda Metropolitanon Atletico Madrilen aurka jokaturiko partiduan. 2019-2020 denboraldian, utzita aritu zen Valentzia klubaren filialean, Bigarren B Mailan. Han, bost gol sartu zituen 25 partidutan.

2021-2022 denboraldian, 24 neurketa jokatu zituen LaLiga SmartBanken, bat Rayo Vallecanogaz eta 23 CD Mirandesegaz. Mirandesera utzita heldu zen lehiaketaren erdialdean, eta gol bi sartu zituen. Aurtengo denboraldian, Errege Kopako partidu bitan parte hartu du Rayo Vallecanogaz: Bergantiños eta Mirandes taldeen kontra, hain zuzen ere.

Orain arte, Amorebietak 26 gol sartu ditu 22 jardunalditan. Bigarren Mailan golik gehien sartu duen hamargarren taldea da une honetan.

2023ko Tourreko etapa bat Zornotzan hasi liteke

EITBk kaleraturiko informazioaren arabera, etapa uztailaren 3an lehiatuko litzateke eta lasterketak Zornotza eta Baiona (Lapurdi) lotuko lituzke Tourreko etapa horretan

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Euskal Irrati Telebistak zabaldu duenez, 2023ko Frantziako Tourreko etapa bat Durangaldean hasiko da, Zornotzan, hain zuzen ere. Etapa uztailaren 3an jokatu litzateke eta lasterketak Zornotza eta Baiona (Lapurdi) lotuko lituzke. Andoni Agirrebeitak Zornotzako alkateak azaldu du ezin duela ezer baieztatu. Urtarrilaren 26an aurkeztuko dituzte 2023ko Tourreko xehetasun guztiak, Gasteizen (Araba).

Itzuliko etapak Mallabian

Bestalde, Igor Agirre Mallabiko alkateak konfirmatu duenez, apirilaren 8an gizonen Itzuliko azken aurreko etapa, Zamudion hasiko dena, Mallabian amaituko da.

Horrez gainera, Agirrek baieztatu duenez, maiatzaren erdialdean lehiatuko den emakumeen Itzuliko etapa bat Mallabian hasi eta amaituko da. Itzuliak hiru etapa izango ditu, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian bana, eta Bizkaikoa Mallabiak hartuko du.



2023ko Tourreko xehetasunak urtarrilaren 26an aurkeztuko dituzte, Gasteizen.

Broncano, Amorebietaren kamiseta eta aurkezleak Unzuetagaz duen antzekotasuna

Iker Unzueta Amorebietako jokalaria sarritan entzun du David Broncano telebista aurkezle ezagunaren antza duela. Fama hori umorerako erabilita, klubetik Amorebietaren kamiseta bat bidali diote Broncanori. Honek umorez beteriko bideo batez erantzun dio erregaluari. Unzuetak ere umorez erantzun dio sare sozialetan: "Gura baduzu, egunen batean aldatu egingo dugu lana", ipini du.



Jokaldia

VI nazioak inoiz baino parekatuago

Aste bi barru emango zaio hasiera ipar hemisferioko txapelketarik ospetsuenari, VI nazioak, hain zuzen ere. Nire aburuz, edizio honetarako ez dago favorito argirik, eta Italia kenduta, gainerako bost taldeek dute irabazteko aukera.

Hasteko, egungo txapeldunarekin hasiko naiz, Galesekin. Iaz lau garaipen lortu zituen eta porrot bakarra izan zuen. Momentu honetan, eta udazkenean erakutsitako maila mantenduko balu (Australia garaitzea lortu zuen) aukerak izan ditzake iazko garaipena berresteko edo behintzat gertu egoteko.

Frantzia da niretzat favorito nagusia. Fabien Galthie talde indartsua osatzen ari da, helburua datorren urtean du finkatuta: Mundiala izango dugu jokoan, eta oilarraren lurraldea izango da antolatzailea. Antoine Dupont dugu talde



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

"Edizio honetarako ez dago favorito argirik; Italia kenduta, gainerako bost taldeek dute irabazteko aukera"

"Frantzia da, nire ustez, favorito nagusia. Fabien Galthie talde indartsua osatzen ari da"

honetako izar nagusia, 2021. urteko munduko jokalaririk onena izendatu berria; bera izango da kapitaina, Olivon lesionaturik baitago.

Irlanda ere indartsu dator. Azaroan, historian bigarren aldiz, All Blacks taldea mendean hartu zuen, sekulako indarra eta abiadura erakutsiz, eta hau gu-

txi balitz aste bete geroago Argentinari sekulako jipoia eman zion. Kontran dute, partidarik gogorrenak, Ingalaterra zein Frantziaren aurkakoak, etxetik at jokatu dituztela.

Eddie Jonesek urte batzuk daramatza Ingalaterrako entrenatzaile lanetan. Joko estilo gogorra eta sendoa ezarri du, dena lotuta du eta inprobisaziorako tarte gutxi uzten du, nahiz eta jokalaria trebe eta iaioak izan. Azaroan prestigio handiko garaipenak lortu zituen.

Bukatzeko, Eskozia dugu. Karduen XVk goranzko joera erakutsi du azken urteetan, baina joera hori berrestea falta zaio. Maila handiko jokalaria ditu: Finn Russell eta Stuart Hogg dira izar nagusiak. Hobetzekotan, agian, maila bereko ordezkioak izatea. Beraz, itxuraz behintzat, azken urteetako txapelketarik parekatuena daukagu.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?


Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 21 · 09:00-09:00	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA TZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:0	ASTELEHENA, 24 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 22 · 09:00-09:00	09:00-22:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	MARTITZENA, 25 · 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	EGUAZTENA, 26 09:00-09:00
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 27 · 09:00-09:00
09:00-22:00	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 23 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU

GOZOTEGI-OKINDEGIA

Zorionak, **Intza, Irati eta Igor (878. alea)!**
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, maitia! Bizitzan horrela dantzatzan jarraitzea espero dogu! Maite zaitugu, laztana. Danelen, aitaren eta amaren partez musu potolo bat.

Zorionak, **Uxue!** Egun polita izan zure urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partez!

Zorionak, **Julen!** 6 urte egiten ditu gure mutil handiak! Jarraitu horren alai eta jator! Muxu erraldoi bat etxekoan partez.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡️ 7° / -2° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 12° / -2° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 11° / 2° ☁️
DOMEKA 🌡️ 11° / -2° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 12° / -1° ☀️	EGUENA 🌡️ 10° / 1° ☁️

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1#

DENA AMETSA DEN IRUDIPENA
Leire Vargas (Elkar)

2#

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
Eider Rodriguez (Susa)

3#

ASTERIX ETA GRIFOA
Jean-Yves Ferri & Didier Conrad (Salvat)

4#

MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

5#

IZURDEEN AURREKO BIZITZA
Kirmen Uribe (Susa)

“Ideia on bat izatea da gakoa, eta gero erakusleihoa betetzen joatea”

Malda Bikes dendak Bizkaidenda elkarteak antolaturiko III. Erakusleio Lehiaketa irabazi du. Iratxe Mediavilla eta Zugaitz Ayusok udan zabaldu zuten bizikleta-denda, Bilbon



Iratxe Mediavilla Frances
ELORRIO | 1985
Zugaitz Ayuso Apaolaza
ITSASONDO | 1979
Malda Bikes denda

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Bizkaiko merkataria elkarteak 240 erakusleihoren artean aukeratu du Bilboko Malda Bikes bizikleta dendarena. Iratxe Mediavilla eta Zugaitz Ayusok 1.500 euroko saria irabazi dute, eta iaz zabalduko negozioa ezagutarazteko aukera zabaldu zaie, nabarmendu dutenez. Mediavilla zinemagilea da eta Ayusok bizi osoa darama bizikleta artean. "Ilusioz eta oso motibatuta" erabaki zuten Bilbon bizikleta-denda zabaltzea. Gainera, Elorrioren bigarren denda bat zabaldu zuten iazko urte amaieran. Bizikletak konpondu ere egiten dituzte. Bizkaiko

Merkataritza-ganberak antolaturiko lehiaketan ere hiru finalisten artean geratzea lortu du Elorrioren bizi den bikoteak.

Bizkaiko erakusleiorik politena da zuena. Zorionak!

Iratxe Mediavilla: Hala diote! Eskerririk asko.

Zugaitz Ayuso: Sorpresa eta poz handia hartu ditugu. Esan behar dut Iratxerena izan dela meritu osoa.

Lehenengoz aurkeztu zarete?

I.M.: Bai, eta lehenengo saria lortu dugu! Datorren urtean gatz izango dugu; gainera, beste batzuei ere

utzi behar zaie lekua. Bagenekien ondo geratu zela, baina ez genuen espero lehenengo saria lortzea. Erakusleioak hamar metro ditu, handia da, eta horrek mesede egiten du batzuetan. Gabonei begira ondo dator, ideia on bat izanez gero. Baina ideia hori falta baduzu deskalabrua ere izan daiteke, asko bete behar da eta.

Lan handia eskatzen du erakusleio bat atontzeak?

Z.A.: Iratxe zelan ibili den ikusita, ordu eta buruhauste asko eskatzen ditu. Dena antolatu, aldaketak egin...

I.M.: Ideia on bat izatea da gakoa, eta gero erakusleihoa betetzen joatea. Adibidez, Gabonetan, gabon giro hori islatzeagaz batera gure produktua saltzea lortu behar da. Ez da erraza izaten. Mari Domingik gidaturiko gurdian bizikletak ipini genituen tiraka erakusleioan.

Z.A.: Eta Olentzero bizikleta tailer batean lanean irudikatu genuen. Opariak, jostailuak... prestatzen.

Zerk egin du berezi zuen erakusleioa?

I.M.: Ideia originala izatea baloratu dutela uste dut, eta dena eskuz egindakoa izatea. Euskararen presentzia ere kontuan hartu zutela uste dugu. 'Maldan gora opariak banatzen' leloa ipini genuen. Olentzero eta Mari Domingi ez dira asko ageri Bilboko erakusleioetan, eta ume asko erakarri dituzte. Dendatik gertu hiru ikastetxe daude eta umeak ia egunero etortzen ziren.

Olentzero eta Mari Domingi ez dira asko ageri Bilboko erakusleioetan, eta umeak asko erakarri ditu

Z.A.: Batzuk Olentzerogaz berbetan aritzen ziren.

Zelako garrantzia du erakusleioak?

Z.A.: Negozio batean denak du garrantzia, ondo lan egiteak batez ere, profesionala eta zuzena izatea. Horrela ez bada, erakusleio polit batek ez du ezertarako ere balio. Baina neurria hartuz gero lagungarria da.

I.M.: Negozioan gabiltzanor nortasunaren isla dela esango nuke, eta mimoz atontzen denean jendeak baloratu egiten du, eta eskertu ere bai. Hurbiltasuna ematen du.

Bizikleta bogan dago azkenaldian.

Z.A.: Bai, pandemian asko hasi dira bizikletan ibiltzen. Eurretari-ko asko nazkatu ere egingo dira uneren batean, baina beste askok jarraitu egingo dute, eta hori ona da guretzat.

Bizikleta hartzeko hiru arrazoi?

Z.A.: Osasungarria dela gorputzerako zein bururako. Eta, zelan ez, guretzat oso ona delako! (barrez). Aitortu behar dut azken boladan alper samar nabilela ni.

Lauhortza

Igor Galarza
Intxausti
Kazetaria



Aitzakiak

Igaro dira urteko datarik berezi, nekagarri eta garestienak. Batzuek oraindik beraien poltsikoei begiratzen die, zenbateko zuloa egin duten kalkulatzeko edo biziraun dutela sinisteko. Urte osoan behar ditugu aitzakiak gura ditugunak eta gura ez ditugunak egiteko: kintaden bazkari tradizionala, unibertsitateko ikaskideena, eta, nola ez, familiako bazkari-afariak. Beti sentitzen gara astun egun horietan, gorputzak gozatzen utziko ez baligu legez. Tradizioa denez, eta aurreko belaunaldiak ere horrela egin izan dutenez, guk ere ezin muzin egin horri. Aitzakia horiek ezarritakoak dira, sentitzen ez ditugun aitzakiak.

Badaude, ordea, aitzakia onak. Eta ez naiz ari zapaturu parrandan ateratzeko behar ditugun estimulu horiez. Normalean aitzakia horiek beste norbaiti sorpresa emateko helburuagaz sortzen dira, aitzakiaz harago doan zerbait esan gura diozulako. Seguruenik Gabonetako bazkarian edo kintadan existituko ez den elkartasun bat sortuko da. Sorpresa jaso duenak momentu horretatik aurrera zor bat du, jaso beste eman beharraren zorra. Kasu horretan, ederra da zorra, alde biak betetzen dituelako. Batek jaso izanaren pozak bestearen emanari zentzua janzten dio.

Aitzakiak ez direla behar errepikatzen dugun arren beti gaude bateren bat edukitzeko zain. Bidaia luze baten osteko itzulera, bizitzako etapa berri baten ataria edo amestutako lan bat eskuratzea. Bada, aitzakia ederrak dira horiek zoriontzeei protagonismoa kendu eta garena baloratzeko. Horrek betetzen gaitu gehien, eta ez dugu zertan data berezirik itxaron. Egundoro da desberdina, ez itxaron betiko aitzakia zaharrei, eta sortu berriak.

Smurfit Kappa
Central forestal

55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión